

ESTATUTUAK

ELKARTEAZ OROHAR

LEHENENGO ATALBURUA

IZENA

1. Atala.- Irabazteko asmorik gabeko **EUSKARA HELBURUA EZKERRALDEAN** izeneko Elkarte osotu da, elkartzeko eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoa Eta Legebiltzarrak Onartutako otsailaren 12ko 3/1988 Elkartearen Legean ezarritakoaren arabera, Euskadiko Autonomi Estatutuaren 9. eta 10.13 Ataletan azaltzen denarekin bat eta indarrean dagoen beste arausiekin ados.

Aipatutako Elkarteak honako araubide izango du: Elkarteei buruzko Legearena, Estatutu hauek berak -Legearen aurkakoak ez badira, beti ere-, bere zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakiak -Legearen eta /edo Estatutuen aurkakoak izan ezik- eta Eusko Jaurlaritzak onartu distan araudi mailako erabakiak; azken hauek osagarri besterik ez dira izango.

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. Atala.- Elkarte honen helburuak honako hauek dira:
Santurtzin, eta Ezkerraldean oro har, euskera bultzatzea eta euskeraren ofizialtasuna aldarrikatzea.

Helburu horiek lortzeko honako ekintza hauek eramango dira aurrera, ezarritako legeko baldintzak bete ondoren:


Jardunaldiak, hitzaldiak, jaiak, bidaiak, irteerak, egonaldiak...

Aurreko idazatian azaldutako ekintzen kaltetan gabe, Elkarteak bere helburuak betetzeko, honakook egin ahal izango ditu:

- Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak lortzeko era guztietako ekonomi ekintzak gauzatzea.
- Era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta hitzarmenak egitea.
- Nolanahiko ekintzak burutzea, beti ere legeekin eta bere Estatutuekin bat etorritz gero.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. Atala.- Elkarte honen egoitza nagusia Santurtziko Genaro Oraa 23an egongo da. Elkarteak, horretaz gain, beste egoitzak eduki ditzake Autonomi Erkidegoan, Batzar Orokor Bereziak horrela erabakiz gero. Elkarte-egoitza edo Elkartearen beste tegiren bat Tokiz aldatzeko erabakia Zuzendaritza-Batzordeak hartuko du, eta horrek Elkarte-Erroldari helbide berriaren berri emango dio.



LURRALDE-EREMUA

4. **Atala.-** Elkarte honen ekintzak, honako lurralde-eremu honetan gauzatuko dira nagusiki: Santurtzi, Portugalete, Sestao eta Barakaldon.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUUA

5. **Atala.-** Euskara Helburua Ezkerraldean izeneko Elkarte betirako osatzen da. Elkarte, Ohiz kanpoko Batzar Orokor Bereziaren erabaki bidez desegin ahal izango da soilik, VI Atalburuan esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoiren batengatik.

BIGARREN ATALBURUA

ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO SAILAK

6. **Atala.-** Elkartearen Zuzendaritza eta administrazioaren arduradunak honako kide anitzeko organoak izando dira.

- Bazkideen Batzar Orokorra, ihardute sail gorena.
- Zuzendaritza-Batzordea, zuzendaritzaren kide anitzeko organo iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. **Atala.-** Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Orokorraren bidez adieraziko dira bazkideen nahiak. Ohiko bilerak eta bilera bereziak egingo ditu.

8. **Atala.-** Batzar Orokorraren Ohiko bilera egiteko deia gutxienez urtean behin egin beharko da ~~10~~ hiruhilabetekoan izango da, eta honako puntu hauek onartzeko: Elkartearen jardín-egitasmo orokorra, aurreko urtean izandako gastu eta diru-sarrerari dagozkien kontuen egoera-orria, hurrengo urteko aurrekontua, eta Zuzendaritza Batzordearen Kudeaketa. Zuzendaritza-Batzordeak Batzar Orokorraren aztertarauekin bat eta haren kontrolpean jardín beharko du beti.

9. **Atala.-** Aurreko atalean jasotakoaren kaltetan gabe, Batzar Orokorrak du ondoko erabakiak hartzeko ahalmena:

- 1- Estatutuak aldatzeko, hurrengo atalean jasotakoaren arabera.
- 2- Zuzendaritza-Batzordea aukeratzeko.
- 3- Elkarte desegiteko, hala badagokio.
- 4- Beste Elkarte batzuekin Federakuntza edo Konfederakuntza osatzeko edo horietakoren batetik ateratzeko.

10. **Atala.-** Batzar Orokorra Zuzendaritza-Batzordeak erabakitakoan bilduko da bilkura berezian, bere kabuz edota bazkideen %25ak eskatuta. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dituzte. Dena den, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilera egin beharko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkarte desegiteko.

11. **Atala.-** Batzar Orokorretarako deiak, nahiz ohikoak nahiz bereziak, idatziz egin beharko dira, eta bilera-tokia, eguna, ordua eta aztergaien zerrenda azaldu. Deia egiten den egunetik Batzarra lehenengo aldiz egingo den egunera bitarteko epea gutxienez 3 egunekoa izango da. Batzarrerako bigarren deia egokituko balitz, egingo diren bi batzarren artean gutxienez 1'5 ordu igaro beharko du.

Iragarkian ez balego jasota 2. deialdi eguna, batzar-eguna baino 3 egun lehenago azaldu beharko da noiz izango den.

12. **Atala.-** Batzar Orokorrak, bai ohikoak eta bai bereziak, balioz osoturik geldituko dira lehenengo deialdian, bazkideen erdia baino gehiago bertaratuz edo ordezkotzarik egonez gero 2. deialdian, berriz, edozein delarik ere bertaratutako bazkideen kopurua.

Bazkideek, beste edozein bazkideren gain utzi dezakete beraien ordezkotza Batzar-Orokorretan parte hartzeko. Esku hori, idatziz egin beharko da eta Batzarrerako Idazkariari eman bilera hasi baino ordu bat lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herrian bizi ez diren bazkideek ordezkaritza beste baten esku uzteko adierazten duen agiria postaz bidal dezake.

13. **Atala.-** Batzar-Orokorraren erabakiak botu gehiengoz hartuko dira.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. **Atala.-** Zuzendaritza-Batzordea honako hauek osotuko dute: ^{eta batzorde dide l.} ~~dute~~ ^{eta} batzorde dide l. ~~Presidentea, Idazkaria, Diruzaina eta Presidente-ordeak.~~ Gutxienez hilabetea behin bildu beharko du, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den hainbat alditan.

15. **Atala.-** Zuzendaritza-Batzordeko kideren bat bilera horietara hiru aldiz jarraian, edo bizbatean lau aldiz ez bada joaten, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen behintzat.

16. **Atala.-** Zuzendaritza-Batzordeko kargudunak, Batzar Orokorrak hautatuko ditu eta 2 urtetarako izando dira. Batzordeak berariz ezeztatu ezean, eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira.

17. **Atala.-** Zuzendaritza-Batzordekoa izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:


- a) Estatutuetan esaten den eran izendatua izatea.
- b) Elkarteko bazkide izatea.
- c) Adinez nagusi edo adinez txiki izanez gero bere buru-jabe izatea, eta herritar-eskubide guztiak izatea.

18. **Atala.-** Zuzendaritza-Batzordekide kargua, Batzar Orokorrak izendatu ondoren, onartutakoan edo jabetzerakoan hartuko da.

Karguak ordaingabekoak izango dira. Dena den, Batzar Orokorrak egun-sariak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

19. **Atala.-** Zuzendaritza-Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia betetakoan.
- b) Kargua ustean.




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTITIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURITZA SAILA
Elkartzan Egoitza
DEPARTAMENTO DE JUSTITIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Asociaciones

- d) Bazkide izateari utzitakoan, edo ezintasun-zioak dituenen.
- e) Batzar Orokorrak ezeztea erabakiz gero, Estatutu hauetako 16. Atalean jarritakoaren arabera.
- f) Heriotzaz.

a) puntuan agertzen dena baldin bada kargua ustearen arrazoia, Zuzendaritza-Batzordeko kideek jardunean jarraitu beharko dute lehenengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.

b), d), e) eta f) puntuetan agertzen dena baldin bada arrazoia, Zuzendaritza-Batzordeak berak hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onartu ala ezeztatu. Ezezkoa bada, dagokion izendapena egingo da.

Batzorde honen osakeran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erroldari.

20. Atala.- Zuzendaritza-Batzorderen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren aztertarauen arabera eta bere esanetara.
- b) Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- d) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari, onar dezan, aurkeztea.
- e) Batzar Orokorraren bileretako aztergai-zerrenda egitea, eta ohiko Batzar Orokorraren eta bereziki deialdiak erabakitzea.
- f) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horretarako behar diren neurriak hartzea.
- g) Batza Orokorrak berariz izendatua ez duen beste edozein eginkizun.

21. Atala.- Zuzendaritza-Batzordeak, Lehendakariak, eta hala balegokio, Lehendakariordeak erabakitako bakoitzean egingo ditu bilerak, euren kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta. Bilerako buru Lehendakaria izango da edo, bertan ez balego, Lehendakariordea. Biak falta badira, berriz, Batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, gutxienez batzordekide kopuruaren erdiak egon beharko du Batzarrean.

Idazkariak bilera-agiriak egingo ditu. Agiri horiek dagokien Liburuan jasoko dira idatziz.


KIDE BAKARREKO ORGANOEK

PRESIDENTEA

22. Atala.- Presidenteak Elkartearen legezko ordezkaritza beregain du. Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakik aurrera eramango ditu. Eraberean, aipaturiko bi sail horien buru izango da.

23. Atala.- Zuzendaritza-Batzordeari edo Batzar Orokorrari oso-osoan dagozkien aginpideak ere Lehendakariaren esku egongo dira, batez ere honako hauek:





- a) Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar-Orokorrak egiten dituzten bileren deiak egin eta bukatutzat ematea: bai batean eta bai bestean sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta botuko-berdinketa gertatuz gero, botu ebazleaz erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza-Batzordeari proposatzea, aldi berean, elkartearen zereginak bultzatzea eta zuzentzea.
- d) Balioz erbakitako ordainketak egiteko agintzea.
- e) Sortu daitezkeen premiazko arazoei irtenbideak ematea, eta Zuzendaritza-Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri ematea.

PRESIDENTEORDEA

24. Atala.- Presidenteordeak Presidenteari lagunduko dio, eta honen aldibaterako ezintasun bitartean ordezkatu egingo du. Eraberean, Presidenteak berari emandako ahalmen guztiak izando ditu.

IDAZKARIA

25. Atala.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, fitxategia eta bazkideen errolda-liburua zaintzea, eta Agiri-Liburuaren zaintza eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, Elkarteen arloan indarrean dauden legezko erbakiak bete daitezzen arduratuko da, Erakundearen agiri ofizialak zainduz, Elkarte-liburu eta agiritegi edukina egiaztatuz Zuzendaritza-Batzordearen hautaketari eta elkarte-egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinarazpenak dagokion agintaritzarengana bideratuz.

DIRUZAINA

26. Atala.- Diruzainak, egindako sarrera eta ordainketen berri emango du, diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoeraren berri emango du. Guzti horiek Zuzendaritza-Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira, eta honek Batzar Orokorrari, onartu ditzan aurkeztu.

HIRUGARREN ATALBURUA



BAZKIDEAK; ONARPEN BIDEAK ETA MAILAK

27. Atala.- Elkartekide izan nahi eta honako baldintza hauek betetzen dituzten guztiak izan daitezke Elkarteko Bazkide:

- Euskalduna izatea, hots, euskeraz mintzatzeko gai izatea, *eta adinez nagusia izatea*

28. Atala.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea. Idatzi hori bi bazkidek izenpetuko dute eta Presidenteari zuzenduko zaio. Presidenteak horren berri Zuzendaritza-Batzordeari emango dio eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena Elkartean onartu ala ez. Dena den, Batzar Orokorrari gorako helegitea egiterik izango da.

29. Atala.- Batzar Orokorraren erabakiz, Elkarteak Ohorezko Bazkide izendatu ~~eta~~ izango ditu bazkide izateko baldintza guztiak bete arren elkartearen helburuak betetzeko ~~berlaratu~~ ezinezko lagunak.

Bazkide hauek, ohorezko dira soilik, eta beraz ez dira legezko bazkide, ez dute Elkarteko zuzendaritza eta Administrazioarako ihardute-sailetan parte hartzeko eskubiderik ez eta inongo betebeharrak ere.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. Atala.- Bazkide orok honako eskubideak ditu:

1. Elkarte-Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta iharduketak aurkatzekoa, aurkatutako erabakiaren edukina ezagutu edo ezagutzeko aukera egunetik eta 40 egunako epean.
2. Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastu-kontuen egoera, eta Elkartearen ekintzen garapenaren berri uneoro jakitekoa.
3. Batzar Orokorreran hitzegiteko eta botua emateko eskubidea erabiltzekoa, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatekoa.
4. Elkarteko Estatutuon arabera, Elkarteko zuzendaritza sailetan parte hartzekoa eta sail horietarako hautagai nahiz hautezle izatekoa.
5. Indarreko legedian oharmandako Bazkide-zerrendan agertzekoa eta Elkartearen ikurra, baldin badu behintza, erabiltzekoa.
6. Estatutuen eta, egonez gero, Barne-Araudiaren ale bana edukitzekoa, eta zuzendaritza-sailei eskakizunak eta kexak aurkeztekoa.
7. Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzekoa, eta bazkideen erabilerako gauzak erabiltzekoa (liburutegiak, elkarre-egoitza...) Zuzendaritza-Batzordeak, kasuan kasu, erabakitako moduan.
8. Zigortze-neurriak hartu baino lehen, bazkideak idatziz adierazitakoa kontutan hartzekoa eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak azaldu dakizkionekoa. Neurri horiek hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien bete-beharrak ez betetzean oinarritu dezakete soilik.

31. Atala.- Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:

1. Elkartearen helburuak lortzeko lankidetzak ekintsua ematea.
2. Batzar Orokorrak ezarritako bazkide-saria ordaintzea, gastuak ordaintzeko.
3. Estatuto hauek eta Elkartearen zuzendaritza-sailek balioz hartutako erabakiak bete eta horiei men egitea.

ZIGOR-ARAUAK

32. Atala.- Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza-Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza-Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera arte eskubideak kentzetik Elkartetik betirako egozterainokoa izan daiteke zigorra, beti ere 34 eta 37 bitarteko atalen arabera, biak barne.

Horretarako, Elkarteburuak zigorrari izan daitezkeen jokabideak aztertzeko erabakia hartu ahal izango du. Azterketa horiek Idazkariak eramango ditu aurrera eta Zuzendaritza-Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko dio. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza-Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik arazoa doakionak adierazitakoa kontutan hartu beharko da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Elkarteen Errolda
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Asociaciones

Aipatu erabakiaren aurka -beti ere arrazoiak eman beharko disuena- Batzar Orokorrera jotzerik izango da, 30.1 atalean oharmandako ekintzei ekitearen kaltetan gabe.

BAZKIDETASUNA GALTZEA

33. Atala.- Hona Bazkidetasuna galtzeko arrazoiak:

- 1) Heriotza.
- 2) Bazkidea nahita aldentzea.
- 3) Egotzi ~~hona~~, Zuzendaritza-Batzordeak erabakitako zigorra dela eta, honako kasu honetan:
 - Estatutuotan Zuzendaritza-Batzordeak balioz hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki haustea behin eta berriro.

34. Atala.- Bazkideren bat aurreko atalean aipatutako azkenengo kasuan aurkituz gero, Elkarteburuak agindu diezaioke Idazkariari, horren berri egokia lortzearen, aurretiazko eginbide batzu egin ditzan. Eginbide horiek ilusita, Elkarteburuak ekintza bertan behera uztea, zigor-espedienteari ekitea -32. atalean oharmandako eran-, edota Elkartetik egozteko espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.


Azken kasu honetan, Idazkariak, egintzak, egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio dagokionari, leporatzen zaizkion salaten berri emanez. Salaketa horiei erantzuteko bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hiru eguneko apean. Epe hori amaituta, beti ere, Zuzendaritza-Batzordeko lehenengo bilkurara eramango du kasua eta bertan hartuko erabaki egokia. Horretarako Batzarkideetatik 2/3ko quoruma beharrezkoa izango da.

35. Atala.- Elkartetik kanporatzeko erabakia doakionari jakin araziko zaio eta, era berean azalduko errekurtsua aurkez dezakeela egin dadin hurrengo Batzar Orokor Berezian. Batzar horretarako deirik ez bada egiten hiru hilabeteren buruan, aipatu errekurtsua nahikoa izango da batzarra egiteko. Bien bitartean, Elkartearen Presidenteak dagokionari bazkide-eskubideak kentzea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza-Batzordeko kide bada, kargu hori utzi erazi egin beharko dio.

Kanporatzeko espedientea Batzar Orokorrari aurkeztuz gero, Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza-Batzordeak doakionak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza eman ahal izan diezaion Batzar Orokorrari, honek dagokion erabakia har dezan.

36. Atala.- Kanporatze-erabakia -beti ere arrazoiak emanda-, dagokionari jakinaraziko zaio eta honek, eskubideaz baliatuz, Auzitegietara jo ahal izango du bere ustez aipatu erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

37. Atala.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan -berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako-, lehendik betegabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.



ELKESKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Elkarteen Errolda
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Asociaciones

LAUGARREN ATALBURUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. Atala.- Elkartek ez du sortze-ondarerik.

39. Atala.- Elkartek, bere ekintzak aurrera eramateko, honako diru-baliabide hauek izan ditzake:

- a) Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako sarrera-kuota.
- b) Batzorde berak erabakitako aldizkako kuota.
- c) Dautzan ondasunetatik ateratzen dituen ekoizpenak eta dagozkion eskubideak. Baita legez hartu ditzakeen diru-laguntza, ondare eta dohaintzak ere.
- d) Estatutuen helburuak kontutan harturik Zuzendaritza-Batzordeak erabakitako ekintza bidezko dakartzkite irabaziak, beti ere Estatutu hauetan jasotako helburuen esparruan.

Elkartearen diru-baliabideak ez dira inoiz kideen artean banatuko.

Elkartearen ekonomi-ekitaldia urtekoa izando da, eta urte bakoitzeko Abenduaren 30ean itxiko da.

BOSTGARREN ATALBURUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

40. Atala.- Estatutuen aldaketa Zuzendaritza-Batzordearen ekimenez edota bazkideen % 51ak eskatuta Zuzendaritza-Batzordeak hala erabakiz gero egin daiteke. Dena den, bi kasuetan Zuzendaritza-Batzordeak hiru bazkidek osatutako lantalde bat izendatuko du aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo horrek Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako arteztarauei jarraitu beharko die eta Batzorde berak jarrito duela egitasmoa amaitzeko epea.

41. Atala.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, Elkarteburuak egingo den lehenengo Zuzendaritza-Batzordearen aztergai-zerrendan sartuko du. Batzorde horrek egitasmoa onartu, edo berriz ere lantaldeari itzuliko dio atzera ere aztertzeko.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza-Batzordeak hurrengo Batzar Orokorraren Bereziazen aztergai-zerrendan sartzea erabakiko du edo horretarako propio bilerarako deia egingo du.

42. Atala.- Batzarrerako deiarekin batera Estatutuen aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamenen berri Batzar Orokorrari emango zaio, beti ere batzarra egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzan jaso badira.

Zuzenketak nahiz banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira eta beste testu-aukera izan beharko du.



JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Elkarteen Errolda
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Asociaciones

SEIGARREN ATALBURUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTAKOA

43. Atala.- Elkartea honako hauengatik desegino da:

- 1) Bazkideen nahiaz. Nahi hori horretarako bildutako Batzar Orokorrean azaldu beharko da eta bertan daudenetik gehiengoaren botuak jaso beharko ditu.
- 2) Herri-Legeen Bildumako 39. Atalean azaltzen diren arrazoiez.
- 3) Epai bidez.

44. Atala.- Elkartea deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrak kitapen-Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritzako lau Batzordekideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko Elkartearen zorrak ordaindu ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, honako hauei emango zaie:

- Kitapen-Batzordeak aukeratzen duen edozein elkarte euskaltzaleari.

ALDI BATERAKO ERABAKIA


Eratze-agirian behin-behingo izendatuak agertzen diren Zuzendaritza-Batzordeko kideak, egingo den lehenengo Batzar Orokorraren esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

AZKEN ERABAKIAK

LEHENENGOA.- Zuzendaritza-batzordea izando da Estatuto hauetan azaltzen diren aginduak ulertarazi eta Estatuto horien hutsuneak beteko dituen ihardute-sail aginpideduna. Elkarteei buruz indarrean dauden legezko araupean beti, eta aurreko Batzar Orokorrari, onar dezan, egindako uztiaeren berri emanaz.

BIGARRENA.- Estatutu hauek Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak bakoitzak berari dagokion aginpide esparruan, balioz hartzen dituzten erabaki-bidez aldatuko dira, eta Bostgarren Atalean oharmandakoarekin bat etorritik.

HIRUGARRENA.- Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak Barne-Araudi bat onartu ahal izando du. Horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Elkarleen Errolda
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Asociaciones

B/ 12334 / 2006

Estatuak ondu ondoren, Elkarleen Errolda Nagu-
dik ondu ondoren duen Eusko Jaurlaritzaren, Martxo-
aren 7/1986 Dekretuan eta honi datzekion gainontze-
ko inbuetan ere zehaztutako ondorioetarako.

Visados los presentes Estatutos, a los efectos esta-
minados en el Decreto 77/1986, de 25 de Marzo, del
Gobierno Vasco, por el que se crea el Registro Gene-
ral de Asociaciones y demás normativa concordante.

Bilboan (en) 2006ko otsailaren 14an En Bilboan, a 14 de febrero de 2006

ERROLDEN ARDURADUNA

EL ENCARGADO DEL REGISTRO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAHIA
Elkarleen Errolda
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registrazio